

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak aurrera egin dezan, hainbat funtsezko baliabide behar ditugu. Hauek aurkezteko, hainbat multzotan sailkatu ditugu.

Baliabide fisikoei dagokionez, honako hauek aipa ditzakegu: altzariak, lokala, argindarra, ordenagailua... Baliabide hauen bitartez, gure produktuaren salmentari dagozkion gestioak egingo ditugu, baita konpasak bidalketarako prest utzi ere. Baliabide horien artean, herriko dendetara gure produktua eramateko erabiliko dugun furgoneta egongo litzateke.



Baliabide intelektualak berriz, patentea eta elkarreak dira ezinbestekoak. Gure produktua guztiz berritzailea denez, patentea garrantzi handikoa da, jabetza osoa edukitzea ahalbidetzen baitigu. "Funtsezko Elkarreak" atalean aipatu bezala, beste lan talde batzuekin harremanean egotea beharrezkoa da; izan ere, proiektu honen hainbat esparrutan erabilgarriak izango dira. Esate baterako, Intel eta Milan enpresak gure hornitzaileak izango dira, eta beraz, bien arteko ekoizpenari esker, gure produktuaren pieza garrantzitsuena lortuko dugu.

Finantza baliabideei erreparatuz, gure taldeko partaideen bidez eta bankuan eskatutako mailegu baten bidez lortuko ditugu. Taldeko kide bakoitzak diru kopuru jakin bat jarriko dugu enpresari lehen bultzada ematen laguntzeko. Hala ere, proposa iruditzen zaigu Kutxabank bankuari mailegu baten eskaera egitea; banku honek eskaintzen duen zerbitzua oso egokia iruditzen zaigu, eta gure proiekturako, beste batzuekin konparatuta, hoberena dela deritzogu.

Giza baliabideak ere beharko ditugu enpresa honek funtziona dadin. Horretarako, gure taldekide bakoitzaren partaidetza erabiliko dugu.



Unax trebea da sare sozialen erabileran, eta erraztasun handia du jendearekin komunikatzeko. Horrenbestez, bera izango da gure enpresaren marketing-aren arduraduna.

Irene berriz negoziatzaile bikaina da, bere helburuak argi ditu eta badaki zer den hoberena egoera bakoitzean. Gainera, komunikatzeko arazorik ez du, eta hau positiboa da gainontzeko elkarteekin hitz egin ahal izateko.

Azkenik, Eiderren abilezia matematikekin oso ondo datorkigu diru kontuak eguneratuak eta modu egokian mantentzeko. Oso ondo moldatzen da dirua ahalik eta gehien optimizatzeko, eta hori ezinbestekoa da negozio berri bat sortzerako garaian.

